

BURUA ALTXATZEKO ESKUBIDEAZ

Ekainaren 15-az geroztik, pozik bide daude batzuk. Ez denak. Ez euskaltzale-rik gehienak. Ez ni bederen, eta zinez diot "ez".

Euskal Herrian nagusi irten diren hiru indarretatik bik norainoko euskaltzale-letasuna duten gauza ezaguna da: hutsa.

Bi indar sukurtsalista horiek euskara-ren alde ezertxo ere bultzatuko dutela pentsatzea, paranoia hutsa litzateke: gure hizkuntzaren alde ez dute sekula ezer egin, eta hemenik aurrera ere ez dute egingo; ez baitute Euskal Herria senditzen, eta ez euskara bera. Ipar Euskal Herria gabe, Nafarroa gabe, euskara gabe, abertzaletasuna "arrazakeria" tzat hartu eta abertzaleok "bigun ustel" tzat jotzen dituztela, zer Euskal Herri etor liteke horien eskuetatik? Ezinbestean, oportunitate hutsez, istiluak baztertzeko esperantzan, beharbada eman beharko dute amore orain puntu honetan edo hartan. Baina berek bultzatu, beren buruz euskaltzale-letasuna bultzatu, nolatan? zergatik? nondik nora mirari horiek?

Hirugarren indar garaitzaileak, ber-ritz, abertzale aitortzen du bere burua; orain baino lehenago ere euskaltzale-letasuna bultzatu du, eta Euskadi euskalduna-ren helburua bere gizonen odolaz ere ordaindua du. Hirugarren indar honek, hitz batez, aspaldiko denboretan bezala, euskararen alde borrokatuko duela espero daiteke; eta hal espero dugu abertzaleok.

Euskarari dagokionez, hortaz (eta hauxe da Z. ARGIA-k oraingoan egiten duen inkesta), egoera ez da lortzekoa; politika-ordezkaritzaren mailan bederen, eta garaile gertatu diren indar nagusiei dagokionez.

Pozik duadenak hau diote gutxi gora-behera: "Ba zetorrek! Ba zetorrek gure eguna! Ba zetorrek autonomia! Ba zetorrek, besteak bestem hizkuntzen legegaitasuna!"

Baina Clavero Arévalo Ministro berriaren lehenengo esanek ez dute zirrikiturik ere utzi baikor egoteko. Eta bestetik hauteskunde-entzako ondorioz pozik dauden horietako gehienek bost axola zaie euskara.

Are gehiago ere. Pozik dauden euskaltzaleen artean ere, asko eta asko, ia salbuespenik gabe, erdaraz ari diren sasi-euskaltzaleak dira. Alegia, eguneroko beren bizian erdaraz ari, baina ahoaz eta ahoaz bakarrik (eta desiraz ere bai batzutan beharbada) "gero" eta "besteak" euskaraz egitearen alde agertzen diren horietakoak.

Euskaltzaleik finenak, gogorrenak eta egiazkoenak, oker ez banago, oso larri

daude hauteskunde-entzako ondorioa ikusita.

Benetako euskaltzaleek tema bakarra dute buruan eta bihotzean: Irlandako gertakari latza. Alegia, irlandar abertzaleek berek, askatasun politikoa lortuta ere, hobiratu dutela gaelikoa. Ohore eta espantu handiz hobiratu, hori bai, baina hobiratu, eta Irlandari muina eta sustraia ebatsi.


Funtsean munta duena, axola duena, aspertu ere arte errepikatuko dugu, ez baita paperen eta legeen mailako paretasuna (lehentasun osoa izan du gaelikoa Irlandan askatuan!), indar abertzaleek beren praxian erabiliko duten hizkuntzaren pizkundera baizik. Itxurazko "Ofizial-ki-detasanak" ez zaizkigu aski; eta erdarazko sasi-euskaltzale-letasunak ere ez.

Lehenago ere argitaratu diren hitz berberaz esateko: "Hizkuntza gataska gertatzen den komunitate batetan, gurean adibidez, gizarte alderdi gorakoak inposatzen du objetiboki bere komunikabide hizkuntza egiazkoa; baina inola ez du inposatzen beregan hilik dagoen hizkuntza batzarre hastapen-bukaeretakoa jakulatori-entzako inertsia erretorikoa hartzen duena. Desmaskatu behar dira, behin eta betiko euskarari dagokionez, liturjia itxurakeria-ren irtenezinean sartu nahi gaituzten gertzari zoroak".

Herriaren aldetik eta indar abertzale-entzako aldetik egiazko bultzadarik gabe, eta euskaltzale-letasun oldakorrik gabe, hizkuntzen "lege-paretasuna" oso ongi gerta daiteke itxura huts eta hil, Irlandan gertatu den bezala,

Hots, honetaz ongi jabeturik dauden indar politikokoak, arrisku horren kontzientzia zorrotza beren jokabide praktikoa eta egiazko bihurtu duten alderdi abertzale-entzako al, oker ez banago, ez dira inondik ere garaile atera Ekainaren 15-ko hauteskunde-entzako, ziri bat bederen beharbada sartu badute ere. Honetatik heldu da euskaltzale-entzako kezka larria.

Indar abertzale-entzako militante izateko euskaraz ongi eta benetan jakitea beharrezkoa ez bada (baina erdaraz bai, jakina!); Euskadiko deputatu edo alkate izateko euskaraz jakitea beharrezkoa izango ez bada (erdaraz bai); Euskal Herriaren zuzendaritza eramateko, hitz batez, euskalduna izan beharrik ez badago, baina erdaraz Cervantes-ek bezain ongi bai, orduan, jaun-andereok, diglosia geuk bedeinkatzen dugu, eta geuk azkartuko dugu; eta Euskal He-



ria euskaldunen aberria, geuk elhortziko dugu, Dublingo abertzaleek bezala, ikurrina ta guzti. Euskararik gabeko Euskadiren saiaketa egina baitago behin eta berri-ritz: Gascogne, Bureba, Rioja, Huesca...

Irizpide hau "arrazakeria" omen da... Euskal Herrian euskaraz ere (ez euskara soilik) jakin beharra "arrazakeria" omen da... Baina Belgikako erresuma-administrazioan sartzeko, baita tranbietako kobertzaile edo posta-zabaltzaile izateko ere, flamenkera eta frantsesa, biak jakin behar dira Bruselan; biak, bai. Eta inor ez da horretaz harritzen eta "Marseilleise" kantatzen duten ultra-frantses fazistek beste inork ez du horretan arrazakeriarik ikusten.

Zertarako gogoratuko Israel, Finlandia, Quebec edo Viet-Nam? Hauen "gogorkeria" ulergaitzago litzaiokio oraino ere euskaldun zenbaiti. Horretan gaude oraindik!

Gure biltzarretan, eta "por razones operativas" edo "por respeto a los que no sabe", euskaraz mintzatzea DEBEKATZEN BAZAIGU; gure instituzioetan, gero ere, erdaraz hutsa aski izango bada, gure herriaren nortasuna salbatzeko behar diren baldintzak gaitzesten baldin badira; orduan jaun-andereok, hori proposatzen dutenen helburua garbi dago; eta fazisten helburu berbera da: Euskal Herria SUNTSITZEA. Esan bezate garbi behintzat eta ikurrinaz jantzirik euskal ikurrina lardaskatu gabe, "De Euzkadi" bataiatuz gure herri xehea nahastu gabe. Eta orduan herriak bere bidea argi hautatuko du.

"Arrazakoi" deitzen gaituzten horiek helburu hau daukate Euskal Herrian: erdalkuntza osoa lortu, eta euskaraz bu-rua inoiz ezin latxatzea.

Kementsu izateko, eta beren asmoak garbiki oihukatze-entzako eskatzen diegu. Komeriaz aski. Batez ere gure herriaren geroa tartean dagoelarik.